

2023

**DERIOKO
2023-2027**

**LEGEALDI
PLANA**

2027



DERIO

UDALA / AYUNTAMIENTO

ZEU ZARA DERIO

DERIOKO 2023-2027 LEGEALDI PLANA

Kaixo derioztarra.

Badakigu datozen lau urteak funtsezkoak izango direla Derioren etorkizunerako. Aukera garaia Derio are hobea eraikitzeko.

Denon artean egingo dugu. Jarraian aurkezten dizuegun plana, partaidetza bileretan, gure topaketetan eta elkarrizketetan hartutako konpromisoen emaitza da.

60 ekintza zehatz 3 ildo estrategikotan bilduta, tokiko ekonomia, kultura eta kirola, euskara, gizarte kohesioa, mugikortasuna eta irisgarritasuna bultzatzen lagunduko dutenak, azken batean, zuen neurrirako Derio eraikitzeko.

Zerbitzurako bokazioa eta hurbiltasuna, hori da gure errezeta. Udal **irekia**, bizia, entzuten

duena, zuen beharrei are hobeto erantzuteko bikaintasuna bilatzeko partaidetza sustatzen duena. Udal **gardena**, bere kudeaketari buruzko kontuak ematen dituenena. **ETA, BATEZ ERE, FIDATZEKO MODUKO UDALA.**

Badakizue. **Derio maite dut.** Zorioneko sentitzen naiz zuen eskutik Derioren buru izaten jarraitu ahal izateagatik. Orain arte egin dugun lan guztiari esker, asmo handiak izan ditzakegu, Deriok aukera eta tresnak ematen baitizkigu horrela izan dadin.

Aukera hori EZ dugu alferrik galduko. **Taldea** dugu... zuen ahotsa izateko prest. Eta garrantzitsuena, Legealdi Plan honetan erakusten dizuegun moduan, etorkizuneko **proiektu** sendo bat dugu Derioentzat.

ZEU ZARA DERIO!
Eskerrik asko.



ZEU ZARA DERIO



Esther Apraiz
Derioko Alkatea

**HERRI
BIZIA**

**GOZATZEKO
HERRIA**

2023

2027

**AURRERA
DOAN HERRIA**

HIRU ILDO ESTRATEGIKO



HERRI BIZIA

Hurbila

Dinamikoa / Aktiboa / Bizia

Solidarioa

Askea / askotarikoa

Parte-hartzailea



GOZATZEKO HERRIA

Euskalduna
Lagunkoia
Osasungarria
Jasangarria





AURRERA DOAN HERRIA

Eraginkorra / Gardena / Modernoa
Gobernu irekia
Irisgarria eta inklusiboa
Berdea / Konprometitua



2024

10 PROIEKTU ESTRATEGIKO

- HAPO berria garatzea eta onartzea.

- Patio inklusibo estali bat eraikitzea eta eskolako komun guztiak eraberritzea.

- Errendimendu handiko indar-makinen eremu berri bat sortzea eta gimnasioko makinak hobetzea, makinak berritu eta prest jarritz. Kiroldagiko sarrerako eta gune desberdinetarako sarbideak eraberritzea.

- Anbulatorioko sarbidean markesina bat jartzea, herritarrak eurtik babesteko.

- Haurrentzako aisialdirako guneak berritzea: Piraten Itsasontzia, Gaztelumendi Plaza, Errekatueta eta Herriko Plaza.

- Aldekonen aisiari eskainitako gune estali berri bat eraikitzea.

- Erdiko kalea, Euskotreneko geltokira sartzeko gunea eta Gernikako Arbola kalea osorik berrurbanizatzea, irisgarritasuna, mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko.

- San Migel Plaza berritzea.

- Ibaiondo futbol-zelaiako instalazioak handitzea, 11ko futbol-zelai berri bat eraikiz (harmailetarako igogailu berri bat jartzea eta tabernaren eremua berritzea barne).

- GJHak garatzea, Agenda 2030 estrategia betetzen aurrera egiteko.

2027

HERRI BIZIA

Pertsona bakoitza udal politiken parte aktibo eta onuradun sentituko den herri baten aldeko apustua egiten dugu. Herri irekia, anitza eta askea, etorkizuna izango duena, non tokiko enpresen **suspertze ekonomikoa**, prestakuntza eta berrikuntza sustatuko ditugun elkarlanean.

Komunitate bizia, proaktiboa eta Deriorekin konprometitua.

MATXISMORIK EZ!

	2024	2025	2026	2027	2028
01 Derioztar langabeei lan-aukera berriak sortzea, zuzeneko kontratazioaren bidez edo enpresei laguntzak emanez.					
02 Lan-mahaiak indartzea DerioCom eta ostalaritza-kolektiboarekin.					
03 Hurbileko merkataritzara bideratutako dinamizazio-programak artikulatzea, DerioComekin lankidetzan.					
04 Tokiko saltokien irekitzea sustatzeko ekintzak garatzea.					
05 Tokiko merkataritzarako laguntzak, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa erraztuko duten obrak egiteko.					
06 Pertsonen prestakuntza bultzatzea, gaikuntza-ikastaroak eta prestakuntzarako laguntzak antolatuz, bereziki gazteei zuzenduak, hala nola aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak.					
07 Martxan diren gizarte-zerbitzuak azaltzeko gida bat diseinatzea.					
08 Urteko aurrekontuak derioztarren partaidetza handituz osatzea.					

	2024	2025	2026	2027	2028
09 Indarkeria matxistaren kasuetan jarraitu beharreko protokoloa onartzea, parte hartzen duten eragileei prestakuntza emanez.					
10 LGTB+ kolektiboa ikusarazten eta babesten duten jarduerak garatzea.					
11 Hileta zibiletarako lokal bat egokitzea.					
12 Heziki-D proiektuaren barruan haurrak babesteko protokoloa sustatzea.					
13 “Eskolara Lagunekaz”, “Udalekuetara Lagunekaz” eta “Umeen Kontseilua” programak gizarteratzea.					
14 Atzerrian musika, dantza eta ikasketak egiteko eta kirolari federatuentzako dirulaguntzak bultzatzea.					
15 Udalerrian elkartegintza sendotuko duten neurriak abiaraztea, haiekin urteko bileren egutegia sortuz, dirulaguntzak indartuz eta Udalaren jardueretan inplikatur.					

GOZATZEKO HERRIA

Derioztar gisa harro sentiarazten gaituzten nortasun-ezaugarriak indartuko ditugu. Udalerrri **euskalduna** gara, herritarren inplikazio eta **parte-hartze** handiarekin gizarte, kultura eta kirol jardueretan. Herri **osasuntsua** eta adineko pertsonekin **atsegina**. **Haurren eta nerabeen eskubideak** betetzearekin eta udalerrri are hobea eraikitzeko hauen parte hartzearekin konprometitutako Derio.

	2024	2025	2026	2027	2028
01	Gizarte-eremuetan euskararen erabilera sustatzea, euskarazko ekitaldien kopurua handituz.				
02	Elkarte-sarearekin lankidetzan aritzea euskararen erabilera normalizatzeko.				
03	Euskararen aldeko ekitaldi sozialetan parte hartzea bultzatzea.				
04	Zahartze aktiboaren aldeko apustua, honako programa hauen bidez: Ludoteka (Memoriaren Tailerra); belaunaldien arteko tailerrak, Tai-chi ikastaroa; txitxarrilloak...				
05	Elkartek eta gizarte-taldeek jaien eta aisialdi jardueren programazioan eta antolaketan parte har dezaten bultzatzea.				
06	Txakurguneak garatzea udalerriko zenbait eremutan.				
07	"Txakur aleak Derion" proiektua abian jartzea: entrenamendurako tailerra.				
08	Gure gazteen emantzipazioa erraztea: prestakuntzarako, enplegurako eta etxebizitza eskuratzeko laguntzak sustatuz.				
09	4 urtera arteko haurrei zuzendutako azterlana: gozatzeko espazio berriak sortzea.				

	2024	2025	2026	2027	2028
10	Eskaladaren praktika sustatzea, Nordick Walking...				
11	DUKen erabiltzaileentzako "Training Gym" aplikazioa aktibatzea				
12	Kirol Txartelaren erabilera bultzatzea.				
13	Errendimendu handiko indar-makinen eremu berri bat sortzea eta gimnasioko makinak hobetzea, makinak berrituz edo prest jarriz.				
14	Bizikleta Plana garatzea eta eguneratzea, sarea zabalduz eremu berriekin: Txorierriko Etorbidea Maurikobasorantz.				
15	Ingurumenaren aldetik Babestuta dagoen Eremuko (ZAP) bizikleta-sarearen egokitzapena burutzea.				
16	Ganbe Bekoa eta Maurikobaso lotzeko oinezkoentzako bide bat egokitzea.				

AURRERA DOAN HERRIA

Zintzotasuna eta bikaintasuna zerbitzu publikoan. Herritarren beharrei **zorroztasunez, eraginkortasunez eta erantzukizunez** erantzungo dien Udala izan nahi dugu. Administrazio **arina, hurbila eta irisgarria**. **Gardena eta Gobernu Onarekin** inplikaturik, gobernu-eredu **inklusiboago** baterantz aurrera egiteko. **Garapen jasangarriarekin eta ingurumenarekin** konprometitutako kudeaketa, eta derioztarren eskaerei eta bizitzeko modu berriei erantzutea bilatzen duen **hiri-eraldaketa** lagun izanik.

	2024	2025	2026	2027	2028
01 Barneko komunikazio-sistema berriak aplikatzea derioztarrei zuzendutako zerbitzuen kudeaketa hobetzeko (administrazio elektronikoa).					
02 Etengabeko ebaluazio-sistema modernizatzea eta kontuak ematea.					
03 Hainbat eraikin eta udal-eremutan panel fotovoltaiko gehiago jartzea.					
04 Udal-ibilgailuak apurka-apurka elektrikoekin ordeztzea.					
05 Eraginkortasun energetikoari buruzko udal-aholkularitza zerbitzua abian jartzea, jabekideen erkidego eta bizilagunei zuzendua.					
06 Kultur Birika energiari dagokionez eraginkorrena eta iraunkorrena izango den lehen udal-eraikin "berde" bihurtzea.					
07 Urtero hainbat espezieetako zuhaitzak landatzeko kanpainak abiaraztea, bereziki autoktonoak.					
08 Espazio publikoen irisgarritasuna hobetzea: espaloiak hobetzea, zebraideak beheratzea edo mailan jartzea.					

	2024	2025	2026	2027	2028
09 Irisgarritasuna, mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko berrurbanizazioak:					
A Erdiko kalean (euri-urak, ur beltzak, zoladura... hobetzea).					
B Txosna gunean.					
C Tren geltokira sartzeko eremuan, bizikleta-plana garatzeko eta haurrentzako jolasgunea hobetzeko.					
D Seminarioko pasealekuan (Telleri kalea).					
E Gernikako kalean. Oztopo arkitektonikoak (Urkiola eta Euskal Herria arteko eskailerak) kentzeko neurriak hartuko dira.					
10 San Migel Plaza berritzea.					
11 Udalerriko seinaleak berrikusi eta eguneratzea eta hainbat puntutan radar pedagogiko gehiago jartzea.					
12 Egon litezkeen puntu beltzak aztertzen eta detektatzen jarraitzea, segurtasuna areagotzeko, bereziki emakumeentzat.					

	2024	2025	2026	2027	2028
13	Ibaiondo futbol-zelaiko instalazioak handitzea, 11ko futbol-zelai berri batekin. Igogailu bat jarriko da harmailetarako irisgarritasuna bermatzeko, eta tabernaren eremua berrituko da.				
14	HAPO berria garatzea eta onartzea.				
15	Osakidetzarekin lankidetzan aritzea, zerbitzua hobetzeko, espazio gehiago jarri haren eskura.				
16	Eskolako komun guztiak eraberritzea.				
17	Anbulatorioko sarbidean markesina bat jartzea euritik babesteko.				
18	Kiroldegiaren atzealdean (Unbe kalerantz) pergola bat jartzea, batez ere adineko pertsonen gozamenerako.				
19	Haurrentzako aisialdirako guneak berritzea: Piraten ItsasontziA, Gaztelumendi Plaza, Errekatxueta, Herriko Plaza.				
20	Kiroldegiko estalkia konpontzea.				
21	DUKeko sarbide, abono eta inskripzio-sistema osorik modernizatzea.				

	2024	2025	2026	2027	2028
22	Bidegorria Tabernabarrira, Aireportura eta Parke Teknologikora iristea bultzatzea, erakunde eskudunekin lankidetzan.				
23	Eskolan patio inklusibo estali bat eraikitzea.				
24	Aldekonen adinekoek eta haurrek gozatzeko aisia gune estali berri bat eraikitzea.				
25	Kalistenia eremua handitzea.				
26	Uribe parkean hiri-altzariak berritzea, banku, paperontzi, panel, seinale... berriak jarri.				
27	Aldagailu inklusibo bat jartzea kiroldegian, eta aldagelak egokitzea eta ekipatzea mugikortasun urriko pertsonentzat.				
28	Udal-kudeaketako plana eta udal-aurrekontuak 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotzea eta lerrokatzea.				
29	Agenda 2030 Estrategia bera garatzea.				

*“Izan zaitez
munduan ikusi nahi
duzun aldaketa”*

Mahatma Gandhi

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIN BAT DATORREN PLANA

Ekintza txiki bakoitzak gure gizartean eragin iraunkorra sortzen laguntzen du. Europar Batasuna Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzeko estatuen konpromisoaren buru da. 2030erako bete beharreko konpromisoak.

2030 Agendak **mundu hobea eta jasangarria** bilatzen du. Guztiek dute funtsezko eginkizun erabakigarria, bai pertsonak eguneroko ekintzetan, bai tokiko komunitateek eta gobernuek. Zure eguneroko bizitzan, lagundu dezakezu aukera jasangarriak hartzen, GJHak zabaltzen eta pertsona guztien eskubideak errespetatzen eta sustatzen.

Derioko Udalean, **2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)** konprometituta gaude, eta plan estrategiko bat sortu dugu gure konpromisoen garapen osoa bermatzeko.

Baina derioztarrekin, zuokin batera lan egin nahi dugu etorkizun hobe hori lortzeko. Ekintza indibidual eta komunitario bakoitzak ingurune bidezkoagoa eraikitzeke balio du. GJHak lantzen dituzten ekimenak partekatu, motibatu eta gidatuko ditugu. Elkarrekin, norbanako gisa, herritar gisa eta Udal gisa, **aldaketaren eragile** izan gaitezke garapen jasangarrirako, bakea indartuz, giza eskubideak bermatuz eta emakumeak eta neskatok ahaldunduz.

Etorkizun bidezkoago eta parekideagoa eraikiko dugu elkarrekin!

ZEU ZARA DERIO



DERIO

UDALA / AYUNTAMIENTO